

IRAGARKIA

92. ALDIZKARIA - 2022ko maiatzaren 12a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Lan publikoaren eskaintza 2022rako

Honen bidez aditzera ematen da ezen, Lehendakaritzaren apirilaren 28ko 08/2022 Ebazpenaren bidez, onetsi zela Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen 2022rako lan-eskaintza publikoa, honela:

1. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen lan publikoaren eskaintza hau onestea 2022rako, honako lanpostu hauek betetzea barne hartuta, eta kontuan hartuta abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, xedatutakoa:

–Plaza zenbakia: 07. Lanpostua: familia langilea. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: D. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): B2 ahoz, B1 idatziz. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Plaza zenbakia: 10. Lanpostua: familia langilea. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: D. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): B2 ahoz, B1 idatziz. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Plaza zenbakia: 11. Lanpostua: familia langilea. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: D. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): B2 ahoz, B1 idatziz. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Plaza zenbakia: 12. Lanpostua: familia langilea. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: D. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): B2 ahoz, B1 idatziz. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Plaza zenbakia: 13. Lanpostua: familia langilea. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: D. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): B2 ahoz, B1 idatziz. Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Plaza zenbakia: 08. Lanpostua: hezitzailea. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: C. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): C1 (ahoz eta idatziz). Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

–Plaza zenbakia: 09. Lanpostua: administraria. Araubide juridikoa: lan-kontratudun finkoa. Maila: C. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen seigarren xedapen gehigarria). Hizkuntz-profila (euskara): C1 (ahoz eta idatziz). Betetzeko aurreikuspena: 2022-2023.

2. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen lan publikoaren eskaintza argitaratzea iragarki oholean, webgunean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, denek jakin dezaten eta interesdunek egokitzat jotzen dituzten errekursoak jar ditzaten, kasua bada.

3. Ebazpen hau jakinaraztea Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko aldi baterako langileei, lan publikoaren eskaintzak ukitzen dituen lanpostuak betetzen dituztenei.

4. Ebazpen honen berri ematea Mankomunitateko Batzarraren hurrengo bileran.

Ebazpen honen aurka, hautara, errekurso hauetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertzeko errekursoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Etxalarren, 2022ko apirilaren 29an.–Presidente, Miguel María Irigoien Sanzberro.

Iragarkiaren kodea: L2206514